Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko urtarrilaren 13a, asteazkena — 7 — Miércoles, a 13 de enero de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

### Gizarte Ekintza

*Iragarkia*

2020ko abenduaren 22an, Tokiko Gobernu Batzarrak hurrengoa onartzea erabaki du:

Ondasun Higiezinen gaineko Zergak (OHZ) erosteko ahalmen gutxiko familiengan duen eragina txikitzeko asmoz, 2019ko abenduan Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) jaso dituzten familiei zerga hori ordaintzeko diru laguntza zuzena ematea proposatzen da.

Kasu guztietan, Gizarte Larrialdietako Laguntzak emateko, espediente administratibo bat egin da eta, hura bideratzean egiaztatutako baldintzen artean, OHZ ordaintzeko laguntzaren onuradunak zein izango diren kontuan hartu beharreko irizpideak ere bazeuden. Hala, bada, 2019ko abenduan familia batek Gizarte Larrialdietako Laguntzak jasotzeak honako hau esan nahi zuen:

a) Familia osoak, zenbat kide zituen eta kide horiek pentsiodunak ziren ala ez kontuan hartuta, zituen diru sarrera konputagarriak (familia baten diru sarrera guztien artean, ordaindutako lanetik datozen diru sarreren portzentaje bat zenbatu gabe utz daiteke. Horregatik, kideren bat lanean duten familietan, talde familiarraren diru sarreren zenbateko erreala laukian azaltzen diren zenbatekoak baino zerbait handiagoa izan daiteke.) zenbateko hauek baino txikiagoak zirela:

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

### Acción Social

*Anuncio*

Con fecha 22 de diciembre de 2020, la Junta de Gobierno Local ha acordado aprobar lo siguiente:

Con la intención de reducir el impacto del Impuesto de Bienes Inmuebles a las familias con menor poder adquisitivo se propone otorgar una subvención directa a las familias que, teniendo que hacer frente a este impuesto, han sido beneficiarias de Ayudas de Emergencia Social (AES) en diciembre de 2019.

La percepción de las AES supone la existencia de un expediente administrativo en cuya instrucción se han comprobado varios de los criterios que se han estimado a la hora de establecer las personas beneficiarias de esta ayuda para el pago del IBI. Así, que una familia fuera beneficiaria de AES en diciembre de 2019 suponía:

a) Que el conjunto de la familia tenía unos ingresos computables (del total de los ingresos de una familia, puede no ser computado un porcentaje de los ingresos que resultan del trabajo remunerado. Por ello, en las familias en las que alguno de sus miembros trabaja la cuantía real de ingresos del grupo familiar puede ser algo mayor de las que figuran en el cuadro.) inferiores a las siguientes cuantías en función del número de miembros y de si los perceptores eran pensionistas o no:

| | *Familiako kide kopurua<br>Nº de miembros de la familia* | | |
|---|---|---|---|
| | *1* | *2* | *3 ó +* |
| GLL eskuratzeko errenta, pentsiodunak ez direnak<br>Renta acceso a AES no pensionistas | 1.118,8 € | 1.436,7 € | 1.589,3 € |
| GLL eskuratzeko errenta, pentsiodunak<br>Renta acceso a AES pensionistas | 1.283,7 € | 1.604,7 € | 1.733,1 € |

b) Familiako kide batek ere ez zuela, beren ohiko etxebizitzaz gain, beste etxebizitzarik jabetzan Espainiako estatu osoan, garajea eta trastelekua barne, edo, baldin bazuen ere, ondare horren katastroko balioak ez zuela gainditzen Gizarte Larrialdietako Laguntzen onuradun izateko c puntuan ezarritako gehieneko balioa.

c) Familiako kide guztien artean zuten ondarea ez zela ondoko taulan agertzen diren kopuruak baino handiagoa, ohiko etxebizitza albo batera utzita:

b) Que ninguno de los miembros de la familia tenía otra vivienda en propiedad distinta a la que es vivienda habitual en todo el Estado español, –incluidos, en su caso, un garaje y un trastero– o que, teniéndolo, su valor catastral no superaba el máximo patrimonial establecido para poder ser beneficiario de Ayudas de Emergencia Social que se recoge en el punto c.

c) Que el conjunto de miembros de la familia, excluida la vivienda habitual, no tenía un patrimonio superior a:

| | *Familiako kide kopurua<br>Nº de miembros de la familia* | | |
|---|---|---|---|
| | *1* | *2* | *3 ó +* |
| GLL eskuratzeko errenta, pentsiodunak ez direnak<br>Renta acceso a AES no pensionistas | 35.805,6 € | 45.977,28 € | 50.859,84 € |
| GLL eskuratzeko errenta, pentsiodunak<br>Renta acceso a AES pensionistas | 41.081,28 € | 51.351,84 € | 55.459,68 € |

EK\CV GAO-I-2020-06990

Horretarako, 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorreko 22.1 artikuluari jarraiki, laguntza horiek arautzeko oinarriak ezarri ditugu, eta irizpen honi erantsi.

Aurrekontuan badago laguntza horiek ordaintzeko nahikoa kreditu 37.000 €, Gizarteratzeko Programako 480.03 OHZrako Diru-laguntzak kontu-sailean, hain zuzen.

Estimazioen arabera, kopuru hori nahikoa izango da 2019ko laguntzak ordaintzeko.

Horiek horrela, honako hau proposatzen dugu:

1. Onartzea Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga ordaintzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak, irizpen honi erantsita.

2. Baimena ematea 37.000 €-ko gastua egiteko, 2020ko aurrekontuko Gizarteratzeko Programako 480.03 Tasak Ordaintzeko diru laguntzak kontu-sailaren kontura.

3. Ahalmena ematea Gizarte Ekintzako Zinegotzi Ordezkariari Oinarrietan ezarritakoaren arabera onuradun diren bizikidetza unitateei laguntzak esleitzeko.

4. Baimendutako zenbatekoa nahikoa ez balitz, baimena ematea Gizarte Ekintzako Zinegotzi Ordezkariari zenbateko hori handiagotzeko, betiere, horretarako behar den kreditua badago aurrekontuan.

Halaxe jakinarazten dizut, jakinaren gainean izan zaitezen eta berekin duen ondorena ekar dezan. Era berean, aditzera ematen dizut ebazpen honek amaiera ematen diola administrazio bideari eta, hilabete baino lehen, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu diezaiokezula Gizarte Ekintzako Zinegotzi ordezkariari, edo, bestela, bi hilabete baino lehen, Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegira jo dezakezula.

Epeak jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunean hasiko dira.

Donostia, 2020ko abenduaren 22a.—Garikoitz Agote Alberro, Gizarte Ekintzako zuzendaria. (6990)

Para ello, de conformidad con las previsiones del artículo 22.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones se han elaborado las bases reguladores de esas ayudas que se acompañan al presente Dictamen.

Para responder al pago de estas ayudas, existe crédito presupuestario suficiente, 37.000 € en la partida 480.03 Subvenciones IBI del Programa Inserción Social.

Dicha cantidad responde a la estimación para cubrir el gasto de estas ayudas en 2019.

A la vista de lo expuesto se propone:

1.º Aprobar las bases que regulan las ayudas para el pago del Impuesto sobre Bienes Inmuebles que se adjuntan al presente dictamen.

2.º Autorizar el gasto de 37.000 €, imputándolo a la partida 480.03 Subvenciones Tasas del Programa de Inserción Social del presupuesto 2020.

3.º Delegar en la Concejala delegada de Acción Social para resolver la concesión de ayudas a las unidades convivenciales que resultan beneficiarias conforme a la previsión de las bases.

4.º Autorizar a la Concejala delegada de Acción Social para que, en su caso, si el importe autorizado no fuera suficiente se realice la ampliación de dicho importe autorizado, siempre que exista disponibilidad presupuestaria para ello.

Lo que le comunico para su conocimiento y efectos, indicándole que contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso de reposición ante la Concejala Delegada de Acción Social, en el plazo de un mes, o impugnarla directamente, en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia San Sebastián.

Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de recibo de la presente notificación.

San Sebastián, a 22 de diciembre de 2020.—El director de Acción Social, Garikoitz Agote Alberro. (6990)

EK\CV GAO-I-2020-06990